

## III - BESTE ADMINISTRAZIO PUBLIKOAK

### DONOSTIAKO MUSIKA ETA DANTZA ESKOLA

#### Lan Poltsak. Informazio publikoa

Musika eta dantzako hainbat espezialitatetako irakasleen lan poltsak sortzeko prozesua arautzen duten oinarriak argitaratu dira 2019ko Martxoaren 5ean Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, baita Erankunde Autonomoaren eta Udal Eskolen artean nahiz Musika Eskola Pribatuekin izenpetutako lankidetzarako hitzarmen markoak ere. Halaber, lankidetzak hitzarmen horiek izenpetu dituzten erakundeen zerrenda osoa argitaratu da; erakunde horiek hitz eman dute bere lan eskaintzak aipatutako lan poltsa horien bitartez kudeatuko dituztela.

Hitzarmen hau izenpetu duten Arabako erakundeen zerrenda ondorengo hau da: "Zortziko" Udal musika eskola, Alegria-Dulantzi musika eskola, Asparrena Udal Musika eskola eta "Jose Uruñuela" Dantza Kontserbatoria (Gasteiz) y "Luis Aramburu" musika eskola.

Prozesu honetan parte hartu nahi dutenek hogeita hamar egun naturaleko epearen barruan aurkeztu beharko dituzte beren eskaerak, 2019ko Martxoaren 6tik kontatzen hasita. Deialdi honen loturiko iragarkiak Donostiako Udalaren Musika eta Dantza Eskola Udal Erakunde Autonomoaren iragarkien taulan eta [www.donostiaeskola.eus](http://www.donostiaeskola.eus) Eskolaren webgunean argitaratu dira.

Donostia, 2019ko martxoaren 1a

*Kudeatzailea*

**MIKEL MATE ORMAZABAL**